



Etxeberria espetxeratu dute Frantzian

LIZARTZA ▶ Tolosako espetxera eramane zuten atzo; aurki epaituko dute Pauen, abokatuaren esanetan

ALDARRIKAPENAK ▶ Axurdario plataformak «kezka» azaldu du eta Etxeberria «aske uztea» eskatu du ▶ 5



Axurdario plataformakoak, atzo eginiko prentsaurrekoan. M. SOROA



Papergintzaren egoera «salatuz» auto karabana egin dute sindikatuek

TOLOSALDEA ▶ ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek adosturiko hitzarmena sinatzea eskatzen dute; ekimen gehiago egingo dituzte ▶ 2

ALEGIA ▶

Jendetsuena babarrun jatea, Gaztetxearen urteurrenaren baitan

Balantze ona egin dute; Betagarri eta Playback-a ere «arrakastatsuak» ▶ 4

AMASA ▶

I. Emakumea Pilotari Txapelketa amaitzear

Bihar egingo dute azken jardunaldia ▶ 3



Gernikako Arbola, 1 • TOLOSA

TELEFONOA DOAN
+

%50eko deskontua betiko

Euskaltelen kontratu bidezko bezero bazara

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zalantzazko prozedura

Joan den urteko irailaren hasieratik hutsik dago Tolosako Udaleko berdintasun agentearen lanpostua, hura betetzen zuten langileak postua utzi egin zuelako. Langile hura 2005eko hasieran egin ziren hautaketa probetan kontratatu zen, eta erreserbako zerrenda bat geratu zen ordezkapenak egiteko, behar izanez gero. Irailean lanpostua hutsik geratu zenean, jokabide normalena zera izango zen: zerrendako hurrengo kontratatzea, hau da, zerrendari jarraitzea. Horrelakoa izan da, orduara arte, Tolosako Udalaren jokabidea.

Baina gure harri durarako, jakin genuen bide hori baztertu eta pertsona jakin bat kontra-

tatu behar zutela lanpostua betetzeko, hau da, *entxufe*-aren bidea hartu zutela.

Udalean bertan galdetu genuen horren arrazoia eta erantzun ziguten pertsona horren gainean informe onak zituztela eta erreserbako zerrenda harekin ez zegoela inolako konpromisorik, ez zela horrelako kasuetarako egin. Hau da, zerrenda hura ez zen baliagarria kontratazioa egiteko, baina, aldiz, kontratatu nahi zuten proba haietan parte hartu eta azterketak gainditu ez zituen norbait. Ez al da susmagarria eta larria? Udalak hartutako bide hori zerrenda hartakoei eta enpresa komiteak berak salatu egin zuten eta alkatetzak geldiarazi egin zuen prozedura; eta makillatzeko, beste oinarri batzuk egin zituen berdintasun agentea kontratatzeke.

Eta orain dator hurrengo sorpresa: emakumearen berdintasunerako agente lanpostuari beste eduki batzuk jarri nahi dizkiote: immigrazioa eta gizarte-esklusioa. Gai horiekin, bestalde, Gizarte Zerbitzuen Departamentuan dihardute. Ez dugu ulertzen erabaki horren helburua. Zer da emakumearen arloa? Saski-nahaski bat? Edo oraindik ere gauza okerragoren bat dago atzean?

Lanpostu honen hautaketa azterketa gaur egingo dute. Kezkaturik gaude gerta daitekeenarekin, kontuan izanda nola hasi zen guztia, norbait *entxufe*-z kontratatzeke asmorekin. Hautaketa proba hauek ez digute garrantzia handirik ematen.

Duda eragiten duten gauza asko daude. Esaterako: helburua emakumearen gaia Tolo-

san lantzea bada, zergatik kendu dituzte gai zerrendatik *emakumearen egoera Tolosan* gai-riko ezagupenak? Edo, emakumearen, immigrazioaren edo gizarte-esklusioaren alorreko ezagupenak eskatzen badira, epaimahaiko nor da aditua gai horietan? Gure iritziz, azterketako epaimahaia izendatu dutenean ez dira hautatu gai horietan adituak diren pertsonak.

Lanpostu honen kontratazioa oker hasi zen, oker doa eta ikusiko dugu zertan bukatzen den. Udalak, administrazio bezala, lanpostu bat betetzeko deialdietan garantizatu egin behar ditu publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak.

Adi egongo gara.

BEGO ALDALUR ETA HECTOR ESPIN
(TOLOSA BIZIRIK) ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶

Gabonetako zozketako irabazleak

Alde Zaharra Dendak elkar-teak antolatutako Gabonetako zozketan zenbaki irabazleak hauek izan dira: 08.567 (Enmarcaciones Sorron, Korreo kalea); 55.679 (Lizarralde harategia, Errementari kalea); 93.895 (Modas Sucre, Korreo kalea); 24.156 8Goi-koetxea estamkoa, Zerkausi kalea); 34.719 (Arozena harategia, Arostegeta kalea). 500 euroko sariak dira zehazturiko dendetan erosi ahal izateko. Urtarrilaren 20a izango da azken eguna.

ASTEASU ▶

Martxoan izango da ofizialki Atxaga euskaltzain oso

Bernardo Atxaga asteasuarra martxoan hasiko da ofizialki euskaltzain oso bezala. Euskaltzaindiak adierazi duenaren arabera, Asteasun bertan egingo dute euskaltzain oso izendatzeko ekitaldia, eguna zehaztu ez duten arren.

TOLOSA ▶

Biharko manifestaziorako autobusa

Ezker abertzaleak bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatu ditu eskualdeko herritarrentzat. Bertan izena eman nahi duenak Tolosako Raku tabernara joan behar du. Bihar 15:15ean aterako da autobusa Triangulo plazatik.

TOLOSA ▶

Haurren danborradako entseguak

Tolosako Udalak bere azken batzarrean ETAK Madrilgo Barajas aireportuko T4 terminalen buruturiko atentatua gaitzetsi du. Halaber, biharko Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak Bilbon deituriko manifestazioarekin bat egin du. Eta tolosar guztiei dei berezia egiten die bertan parte har dezaten, bandoan argitara eman duten bezala.

EKONOMIA ▶

Sindikatuak bat eginik papergintzaren alde

Auto karabana egin zuten atzo ELA, LAB, CCOO eta UGTk; laurek adosturiko hitzarmena sinatzea eskatzen dute

ERREDAKZIOA

ELA, LAB, CCOO eta UGT langileen sindikatuak bat egin zuten atzo goizean papergintzaren aldeko ekimenean. Auto karabana egin zuten lehendabizi Tolosatik Hernaniraino; tartean, Andoainen egin zuten geldialdia, han ere hainbat paper fabrika baitaude, eta bertako jende gehiago gehitu zen auto karabanara.

Andoaindik Hernanira joan ziren Celulosas de Hernani eta Zikunaga lantegiak dauden le-



Tolosatik abiatu zen auto karabana. I. TERRADILLOS

kura. 13:30etik 14:15era burutu zuten han kontzentrazioa, langileen txanda aldaketak ziren ulean.

Papergintzak egun bizi duen egoera salatu nahi izan zuten atzoko ekimenarekin lau sindikatuak. Izan ere, sindikatuak adierazitakoaren arabera, «2006ko hitzarmena sinatu gabe dugu oraindik, Adegin dauden enpresek ez dutelako sinatu nahi izan, egoera ez dela ona erantzuten dute». Hala, Gipuzkoako hitzarmena da egun langileek dutena, eta sindikatuak arauetan eta soldatan aldaketak egitea eskatzen dute. Sindikatuen arabera, «ekimen hauek grebaren aurreko mobilizazioak dira; patronala ez bada mugitzen grabara joatera behartuko gaituzte».

Ekimenek jarraipena izango dute; datorren ostiralean, esaterako, 11:00etan berriro ere auto karabana egitekoak dira, eta hilaren 27an kontzentrazioa egingo dute Tolosan.

TOLOSA ▶ SASKIBALOIA

TAKEko kadeteek Gipuzkoako Txapelketako finalerdia dute gaur

ERREDAKZIOA

Gaur, 16:30etik aurrera, TAKE Tolosa C.F.-eko kadeteek Gipuzkoako Txapelketako finalerdia jokatu dute Usabalén. Aurkari, Azpeitiako Caldereria Zahar ISB izango dute.

Fase erregularrean azpeitiarrak izan ziren nagusi puntu gutxiago aldearekin eta oraingoan garaipena lortzeko «gogobiziz» daude tolosarrak. Finalerdia bi partidetara izango da, hurrengo ostiralean Azpeitian itzuliko partida izango delarik.

Vicente Otero eta Kepa Seguro-la bikoteak zuzentzen duen taldeak lehen fase «bikaina» burutu du, sailkapenean hirugarren geratu. Finalerdi honek garrantzi bikoitza du, Gipuzkoako Txapelketako finalera sartzeko txartelaz gain Euskal Li-

gara sailkatzeko balio baitu. Euskal Liga honetan, probintzia bakoitzeko bi talde garrantzitsuenak izango dira eta lehen aldian litzateke klubaren historian hori lortzen dela.

Dena den, gertatzen dena gertatzen dela, egin beharreko lana ondo burutu dute taldeko ordezkarien ustez, eta «hemendik aurrerakoa saria litzateke». Gaurko partidarako zaleak deitzen dituzten jokalariek animatzaera joan daitezten.

AMASA-VILLABONA ▶ KIROLA

I. Emakumea Pilotari Txapelketaren azken jardunaldia, bihar

Nagore Arozena lizartzarrak eta bere bikoteak finalerako txartela badute dagoeneko; partidak 16:00etan hasiko dira



Txapelketan jokatuako partidetakoa bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Joan den azaroaren 4an hasi zen Ezker Hormako I. Emakumea Pilotari Txapelketa, gomazko paletan. Guztira 10 bikote ari dira parte hartzen eta dagoeneko zortzi jardunaldi jokatu dituzte Gipuzkoako herri ezberdinetan zehar, tartean Tolosan. Bihar, 16:00etan, Amasako pilotalekuan jokatu dituzte ligaxkako azken jar-

dunaldia eta bertan erabakiko dituzte zein izango diren finala jokatzeko aukera izango dutenak. Eskualdeko pilotariak aukera ugari dituzte finalean izateko. Okerrik ezean, Nagore Arozena lizartzarra bere bikotekidearekin batera finalerako sailkatua egongo da, ligaxkako txapelkun geratu ondoren. Postu horrek zuzenean ematen du aukera finalean jokatzeko.

Beste txartela bigarren eta hirugarren sailkatuaren arteko finalerdian erabakiko dute. Maider Mendizabal anoetarra eta bere bikotea bigarren postuan sailkatuko dira. Beraz, biharko jardunaldian jakingo dute zein izango den beste hautagaia. Bestalde, Itsaso Urkizu berastegierra eta bere bikote Nagore Zabala ez dira oso fin aritu txapelketan eta ondorioz hasiera batean irabazi be-

harreko partida batzuk galdu dituzte. Azpeitian jokatuko dituzte bai finalerdia eta baita finala ere. Hilaren 20an egingo dute finalerdia eta astebete beranduago, 27an, finala.

Lehenengo edizioa

Txapelketa hau Emakumea Pilotari Proiektuaren barnean kokatzen den kirol federatuko ekintza da. Iazko denboraldira arte neskek ere Elkartearen Arteko Gipuzkoako Txapelketa jo-

katu dute, baina azken urteotan pilotarien joko mailaren arteko ezberdintasuna handitu egin da eta bi elkartek izan dute nagusitasuna txapelketa guztietan. Hori dela eta, lehiaketak interesa galtzen joan dira. Ondorioz, denboraldi honetarako Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak I. Emakumea Pilotari Txapelketa antolatuta du, bikotekide joko mailaren arabera orekatu eta txapelketa interesgarriagoa egiteko asmoz.

ANOETA ▶ POLITIKA

Ezker abertzalea udal hauteskundeetarako prestaketan ari da

Inkesta bat egiten ari dira herritarren ekarpenak jaso ahal izateko; hauteskundeetarako koordinazio-taldea osatu dute

ERREDAKZIOA

Datozen udal hauteskundeetara begira, Anoetako ezker abertzalea «gogotsu» ari da lanean, «garbi baitaukagu azken lau urte hauetan Udalean eman diren gabezia eta atzera-pausoen alternatiba ezker abertzaleak izan behar duela», prentsa ohar batean azaltzen duenez.

Herriaren diagnostika egin eta diagnosi hori batzarrean eztabaidatzea izan da lehen pausua. Ondoren, herri programa lantzeari ekin zioten. Zirriborroa prest izan zutenean batzar batean aurkeztu eta denen artean aztertzeak aukera izan zuten. Hori honetan, «kidegoaren eta herritarren ekarpenak jaso eta herri programa osatzen ari gara, gero herriko eragileekin gure iritzia kontrastatu, eta batzarretan, guztion adostasunez, programa hori fintzeko».



Anoetako ezker abertzalearen udal hauteskundeetarako koordinazio-taldearen kideak. HITZA

Arloz arlo (kultura, ingurumen, hirigintza, euskara, gazteria, nekazaritza, hezkuntza, ...) «herritarrekin eta herritarrentzat» lantzen ari diren herri programa izango da beraien «proiektu politiko eta instituzional, ezkertiar eta parte-


hartzailerean» isla. Etxez etxe egiten ari diren galdeketa baten bidez herritarrek aukera izango dute beraien asmo eta iritzia bide horretan emateko. Ezker abertzaleak herritarrek animatzen ditu kezka, iritzi eta apurtzioak jakinarazten, «de-

non artean eraiki behar baitugu denon gustuko Anoeta». Bi postontzi jarriko dituzte, bat Itzuli tabernan eta bestea Izarti txokolategian, ekarpenak jasotzeko.

Beste pausuetako bat udal hauteskundeetako koordina-

zio-taldea osatzea izan da. «Inongo zalantza edo ekarpenik izanez gero», lan-taldekideekin harremanetan jartzera animatzen dute.

Bestalde, Anoetako ezker abertzaleak deia luzatzen die herritarrei bihar Bilbon *Bakearen eta elkarriketaren alde* lelopean burutuko den manifestazioan parte hartzera, «prozesu politikoari bultzada emateko baliagarria izango baita».



Salgai (Tolosa) lurrarrendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. 5 logela, egongelajangela. 3 bainugela, sukalde osatua. Lorategia. Garaje itxia. **Salgai (Anoeta)** Pagotxa! Pisu polita 78m2-koa. 3 logela, egongela, oso sukalde handia, despentsa, bainugela. Terraza ederra. **Salgai (Tolosa)** Larramendin Voith-en parean. 60m2-ko pisu polita. Terraza 20m2-koa. **Salgai (Tolosa)** 50m2. Atiko ederra estreinatzeko. Gazteentzatz egokia. 191.722 euro. 943 69 71 96 • 675 705 268 Korreo Kalea 50

iragarki laburrak ▶

LANA
Etxeko lanak. Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko eta 15 eta 10 urteko bi gaztez arduratzeko. Deitu: 656 76 64 39 zenbakira.
Gidariak. Gidariak erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.
Lorezainak. Tolosaldeko enpresa

batek lorezainak behar ditu. Interesatuak deitu: 615 78 45 76 zenbakira.
Haur zaintzaileak. Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko Tolosaldean. 650 777 702.
Harreragileak. Harreragileak

erakunde publikoetarako. Deitu 943 44 48 66 zenbakira.
Banatzaila. Baserriko produktuak banatzeko banatzaile bat behar da. 943 68 22 14.
Elektrikaria. Elektrikaria behar da Villabona inguruan, industrian lan egiteko. 629 53 40 50.

GALDUTAKOAK
Txakurra. Border Collie arrazako txakur burri-beltz emea galdu da. 943 652 287 edo 943 651 981ra deitu.
Txakurra. Hispaniel arrazako txakurra galdu da Belauntzan. 689 89 24 34.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Gaztetxearen balantzean babarrun jatea arrakastatsuen

XIX. urteurrena bukatuta Betagarriren kontzertua, egunez egindako ekitaldia eta playback-a azpimarratu dituzte



Betagarrikoen kontzertua izan zen Alegiko Gaztetxeko arrakastatsuen. HITZA

NEREA URBIZU

Alegiko Gaztetxearen XIX. urteurrena ospatu berri dute. Hilabete batez hainbat kontzertu eta ekitaldi berezi antolatu dituzte, eta honen balantzea egin dute aste honetan. Orokorrean, «egunez egindako ekitaldia izan da hilabeteko ekitaldirik arrakastatsuen», Gaztetxeko urteurrenako antolatzaileetako esan bezala.

Joan den abenduaren 23an bertso bazkaria izan zen eta hi-

labete guztian jende gehien eta giro gehien sortu duena izan da: babarrunak eta gaztain jatea izan zen. Ondoren, poteoa Mulanborekin eta kontzertuak gauean. «Egunean zehar oso giro polita eta jende asko izan zen: mahaia 60 lagunentzat prestatu genituen eta azkenean 100 inguru izan ginen: esker-erak, janaria denentzat ailegatu zena»...

Joan den abenduaren 9an hasi ziren Gaztetxean jai bereziarekin, *zerbeza perie* eta za-

hagi sagardoarekin hasiz. «Egunero zahagi sagardoa izan da: kupelaxo bat zegoen Gaztetxean eta norberak bere afaria etxetik ekarri izan du».

Musikari dagokionez, kontzertu handiak izan dira: Betagarri, Eraso, Neubat, Sharon Stoner eta Keike, besteak beste. «Dударик gabe», antolatzaileen esanetan, «Betagarri izan da arrakastatsuen. Iazko festetan etortzeko proposamena egin genien, baina ezin zutela esan zuten. Abenduan urteu-

KONTZERTUAK

Musikari dagokionez kontzertu handiak izan dira: Betagarri, Neubat, Sharon Stoner eta Keike, besteak beste

rrena genuela esan genienean, ideia ona iruditu zitzaion orduan jotzea, eta aurtengoan hemen izan ditugu. Jende asko izan zen». Gaineratu zuten «Betagarrikoek ondoren deitu egin» zutela, «oso gustura egon zirela esateko».

Beste kontzertuetara ez omen da horrenbeste jende hurbildu; «alde batetik, oso data txarrak direlako: Eguberriak, oporrak... Leku guztietan zer edo zer dago gainera», baina, hala ere, «gustura gaude, aurreko urtekoarekin ez da gehiegi aldatu».

Bestalde, playback-a egiten dute urtero, eta «betikoek parte hartu badugu ere, Gaztetxea beti betetzen da». Antolatzaileek gaineratu zuten herriko jendeak parte hartu duela ekin-tzetan, eta jendea «gustura» geratu dela.

«Harrituta edo espero ez genuena» futbolin, pin-pon eta dardoetan parte hartu zuen «jende kopuru handia» izan zen. «Mus txapelketan ez zen horrenbeste jende bildu, baina beste guztietan bai».

Alegi la nuit saio berezia lehengo urtean ere egin zuten, eta orduan arrakasta handia izan zuela aipatu zuten alegiarrek: «Iaz eskenatokian egin zuten saioa, baina aurretik lurrean egin zuten; ikusleek, berriz, Gaztetxearen erdia bete zuten. Saio egileak oso ondo aritu ziren».

Hurrengo abenduan, 20 urte

Aurtengo abenduan, berriz, 20 urte beteko ditu Alegiko Gaztetxeak, eta zerbaki borobila bada ere, ez dute bereziagoa egitea espero, «betikoa egingo dugu: hilabete batez ekitaldiak antolatu eta ondo pasatzen ahalegingu».

ALEGIA ▶

Astelehenean euskarari laguntzeko bilera

Datorren astelehenean, hilaren 15ean, Alegiko udaletxean Bai Euskarari taldeak deitutako bilera izango da. Bertan, euskararen egoera, informazioa eta Bai Euskarari Ziurtagiriari buruzko xehetasunak ere emango dituzte. Deialdia Alegialdeko eskalazale direnei eta euskararen alde lan egin nahi duten herritarrei luzatu zaie, euskararen aldeko talde bat osatzeko asmoa ere badelako. Bilera Alegiko udaletxean izango da 19:30ean.

ALEGIA ▶

Zazpie Pasa pilota txapelketan izena emateko

Aurten ere Zazpie Pasa pilota txapelketa antolatzeko asmotan dira Alegian. Aurtengo bigarrena izango litzateke. Bikoteek izena ohiko tabernetan eman daiteke, baina epea asteburu honetan bukatuko da. 10 euro ordaindu behar da bikoteko, eta partidak Alegiko pilotalekuan izango dira, printzipioz larunbata arratsaldeetan eta igande goizetan.

ALEGIA ▶

Ansorenaren zeramika koadroak

Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika koadroak Alegiko jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, igandera arte. Tabernako orduetegiarekin batera ikus daitezke, eta haiek erosteko aukera ere badago. Naturako elementu biziekin eta buztinarekin konbinatuz margolan bereziak egitea lortu du Ana Jesus Ansorenak.

hitza

Harpidedunen txokoa

“TOLOSA JOKOAN”

Tribial jolasa CD-an

HITZak bere harpidedunen artean egindako zozketaren irabazleak:

- ▶ Juan Inazio Elozegi (Berastegi)
- ▶ Santi Saizar (Tolosa)
- ▶ Jasone Armendariz (Altzo)
- ▶ Jose Agustin Arrieta (Tolosa)
- ▶ Karmen Iraeta Arsuaga (Tolosa)
- ▶ Aloña Usandizaga Izagirre (Irura)
- ▶ Josune Agirrezabala (Tolosa)
- ▶ Jose Antonio Olaetxea (Tolosa)
- ▶ Izaskun Zarategi (Villabona)
- ▶ Elena Eiguren (Tolosa)

HITZAren egoitzatik pasa zaitetz zure jokoaren bila!



BERASTEGI ▶

Donostiara egun pasa joateko aukera

Gaztainondo Jubilatut elkar-teak Donostiara txangoa antolatu du San Sebastian Egunerako. Eguerdian haurren danborrada ikusteko aukera izango da eta ondoren sagardotegi batean egingo dute bazkari legea. Interesatuak bihar baino lehen eman beharko dute izena. Gogoratu bazkideek 28 euro ordaindu beharko dutela eta bazkide ez direnek 32 euro.

IBARRA ▶

Euskara Zerbitzuetako egutegiak salgai

Ibarrako Euskara Zerbitzuetako, urte berrian sartu garen honetan, 2007ko egutegiak argitaratu ditu nahi duen orok eskura ditzan. Interesatuak udaletxean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete doan honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara. Informazio gehiago eskuratzeko interesatuak telefono zenbaki honetara deitu dezakete, 943 67 38 27.

LEABURU ▶

Txaramako Elkartean urteko bilera orokorra

Txaramako Elkar-teak urteroko bilera orokorra egingo du bihar goizeko hamaiketatik aurrera Txaramako Elkartean bertan. Hona hemen bileran landuko diren gaien zerrenda: aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, egoera ekonomikoa, proposamen ezberdinak, eskaerak eta iradokizunak eta baita direktiba berriaren onarpena ere.

TOLOSA ▶

Langileentzako ikastaroak L.H. institutuan

Tolosaldea Goi mailako Lan-kide Heziketa Institutuetan hainbat ikastaro antolatu ditu. Ikastaroen artean, *Informatika ACCESS, Domotika, Fresadora konbentzionala eta torno programatzea CNC* daude. Izena emateko deitu 943 65 11 47 telefono zenbakira.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Frantzian espetxeratu dute Garikoitz Etxeberria gaztea

Tolosako espetxera eraman zuten atzo arratsaldean; Etxeberriaren abokatuak adierazi duenez, datorren asteartean edo hurrengoan epaituko dute Pauen

MADDI SOROA

Garikoitz Etxeberria lizartzarra Tolosako espetxera eraman zuten preso atzo arratsaldean. Etxeberriaren abokatuak adierazi eraman duenez, datorren asteartean hilaren 16an edo hurrengoan hilaren 23an epaituko dute Frantziako Pauko epaitegian. Dirudienez, juizio azkarra burutu eta euro-agindua aplikatuko diote bertan, ondoren Espainiara eramateko. Etxeberriaren senitartekoei datorren asteartean ikusi ahal izango dute lizartzarra. Gaztearen abokatuak adierazi duenez, atxiloketako unean kolpe bat jaso zuen buruan lizartzarrak eta erietxera eraman behar izan zuten bertan plakak ateratzeko. Une honetan, aurpegi kolpearen arrastoa duela adierazi du abokatuak.

Lizartzako Axurdario herri plataformak atxilotu berriak izan diren Garikoitz Etxeberria eta Aritz Larrinagaren egoeraren inguruko kezka azaldu zuten atzo arratsaldean eginiko agerraldian.

Axurdariok, sei erabaki zehaztu zituen prentsaurrekoan. Horietan lehena, «Etxeberria eta Larrinaga baldintzarik gabe aske utzea» izan zen. Bigarrenik, «inkomunikaturik egondako egunetan jasadako tortura eta mehatxuak» salatu nahi izan dituzte, baita «fami-liak behar duen laguntza emateko konprometua hartu ere». Jarraian, «euro-agindua sortzen duen kezka» azpimarratu zuten.

Halaber, «Euskal Herriak Frantziako eta Espainiako bi estatuekin duen gatazkaren ir-



Axurdario plataformako kideak «kezkatuta» agertu dira Etxeberria eta Larrinagaren egoeraz. MADDI SOROA



Berrehundik gora lagunek «Etxeberria eta Larrinaga askatzeko» herenegun eginiko manifestaldia. M. SOROA

tenbidea den bake prozesuan konpromisoak har ditzaten exijitzen diogu inplikatu guztiei».

Egunotan Lizartzan egindako mobilizazioak gogorarazi zituzten eta amaitzeko «ez ohiko udaletxeari Etxeberriaren egoeraz kezkatu dadin eta konpro-

misoak har ditzan eskatzen diogu», adierazi zuten Axurdarioek.

Mobilizazio jendetsuak

Etxeberria eta Larrinagaren «atxiloketak salatzen» eta «atxilotuen askatasuna» exiji-

tzeko mobilizazioak egin dira egunotan Lizartzan. Hala, asteartez geroztik egunero izan dira mobilizazioak 20:00etan herriko plazan. Jende ugari eman die elkartasuna atxilotuei, berrehundik gora lagun elkartu delarik manifestazioetan parte hartzeko.

TOLARE
URBITARTE
SAGARDOTEGIA

ZABALIK

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 18 01 19
20211 ATAUN

Urtarrilak 13an Txotx garaiari hasiera emango zaio.

ISASTEGI
sagardotegia

Larunbat eguerditan irekita

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

TOLARE-SAGARDOTEGIA

SARASOLA

Larunbata eta igandetan eguerdian irekita
Inaugurazioa larunbatean:
TRIKITILARI ETA BERTSOLARIK

Jatorrizko Sagardoa

Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
639 77 84 20

MENDIA ▶

Mendira joateko eskaintza

Urteroko mendi irteeren egitarauak atera dituzte mendi taldeek;
Euskal Herri osoan zeharkaldiak egiteko aukera eskaintzen dute



Kerexetako basoan zehar Aizkardi mendi elkarteak egindako mendi irteera. HITZA

JOXEMI SAIZAR

Urtea asmo onez beteta hasteko ohitura zabaldua dago gure artean eta, besteak beste, naturan eta kirolan gehiago murgiltzeko. Horretarako bidea errazten dute eskualdeko mendi elkar-teeek irteeren egitaraua kalera-tuz, urtero. Nahiz eta mendi talde gehiago izan, hiruk bakarririk ateratzen dute horrelako egitaraua: Tolosako Alpino Uzturrek, Villabonako Aizkardik eta Alegiko Mendi Asanbladak.

Hiru elkarte hauen irteerek badituzte hainbat ezaugarri komunean: hilero irteera bat izaten da, autobusez joaten dira eta horrek zeharkaldia egiteko aukera ematen die, Euskal Herriko beste lurraldeak ezagutzen saiatzen dira, Pirinioetara ere iristen dira, aurretik prestatu egiten dute irteera, mendiak ez dituzte errepikatzen, 6-7 orduko ibilaldiak izaten dira eta alternatiba motzagoa eskaintzen saiatzen dira, bazkide ez direnentzat ere zabaltzen dute deia, mendi-joateko lagunak ez dituztenei aukera ematen diete... Jende gaztearen falta da denek aipatzen duten beste ezaugarrietako bat.

Uzturre, Iparraldera askotan

Alpino Uzturre elkarteak aurretik Iparraldera antolatatu ditu txango asko, bost gutzira. Gipuzkoan berriz, bakarra izan-

go da, babarrun jatea egiteko aprobetxatzen dutena. «Autobusa izanda, urrutigora joateko aprobetxatzen dugu», dio Aitor Oiarbide lehendakariak. 575 bazkide izan arren —bertan federatzen diren guztiak— autobusa betetzeko arazoak izaten dituzte batzuetan eta gastuak kubritzeko kaxara jo behar izaten dute. Normalean irteeretara joaten den jendearentzat —tartean adinekoak— egokitzen dituzte irteerak. Adibidez, aurtengo lehen irteera, etzi egingo dutena, Heleta-Bidart bidegorritik izango da.

Iaz Pirinioetara antolatutako

irteeran jende gutxi izan zen eta autoetan joan behar izan zuten, zeharkaldia egiteko aukerarik izan gabe, eta aurten ez da horrelakorik antolatuko, baina egitarautik kanpo joateko aukera izango da. «Taldea handiekin Pirinioetara joateak arazoak dakartza: albergea hartzeko, altura handietan mugitzeko, ardura handiagoa da... Horregatik aurten ez dugu egitarauan sartu, baina urtean zehar talde txikiagoetan joateko asmoa badugu. Beste elkarteetan ere hala funtzionatzen dute», azaldu du Oiarbidek.

Elkarte honek beste eskaintza batzuk ere baditu egita-

Beste mendi taldeak

Irteeren egitaraurik ateratzen ez badute ere, badira beste mendi taldeak eskualdean.

Tolosako Oargik, adibidez, ehun eta piko bazkide ditu —210 inguru federatzen dira bertan—. Mendi irteerak antolatzen ditu tarteka, baina autobusa osatzeko adina jende biltzen ez denez, autoetan moldatzen dira. «Eskiatzera bai, jende gehiago animatzen da, eta aurten ere joateko asmoa dugu», azaldu du Juan Manuel Serranok.

Leitzako Mendibil mendi taldekoak «nahiko desmoralizatu» agertu dira. «Iaz hilero irteera bat antolatu genuen, baina jendeak ez zuen eran-

tzun eta irteera bakarra burutu genuen», adierazi du Pello Belauntzaranez. Hala ere udaberri aldera irteeraren bat antolatzen saiatuko omen dira berritoki.

Badira beste hainbat mendi talde eskualdean: Aralarako Adiskideek XIV Orduko Martxa antolatzen dute urte olimpietakoan, Ibarrako Haitzetan-Rajuk tarteka ibilaldiak burutzen ditu, Amezketa Buruntzunin aterpeko bazkide irteera pare bat prestatzen dute haur eta helduentzat eta hainbat ikastetxek ere guraso eta seme-alabentzako mendi irteerak antolatzen dituzte tarteka. ◀

rauan. Martxoaren 11n, lau urtez behin, beste eskualdeekin txandatu antolatzen duten Eskolarteko Mendi Martxa izango da Tolosan bertan, San Esteban eta Artzubi artean. Eta iraupen eskiko irteera izango da Marxa Beret lasterketara, otsailaren 3 eta 4an, eta ikastaroa otsailaren 24-25ean eta martxoaren 3-4an 1993-96 urteetan jaiotako gazteentzat.

Aizkardi, lanean txukun

Aizkardik 280 bazkide ditu —horietako 250 federatuak— eta herrialde desberdinetara joateko aukerak bildu ditu bere egitarauan. Normalean 30-35 lagun joaten dira irteeretara eta batzuetan gehiago ere bai. Urtero jende asko biltzen duen ibilaldi bat antolatzen du Villabona inguruan eta mendi aste bat azaroan, hainbat hitzaldi eta proiektio izanik, irteera txiki bat inguruan eta bazkari batekin bukatzeko. Antolaketan huetan taldekideen «laguntza handia» izaten omen dute. «Urtero Pirinioetara joaten gara irailan. Iaz eguraldi txarra izan genuen eta burutu gabe gelditu zen. Horregatik agian tokia errepikatu egingo dugu, Gavarnie inguruan», dio Maddi Bengoetxeak. Irteera prestatzen, informazioa eta argazkiak biltzen eta webgunea hornitzen ahalagun berezia egiten dute billabonatarrek.

Alegian berrienak

Alegiako Mendi Asanbladak zazpi edo zortzi urte darama martxan eta 40-45 bazkide biltzen dituzte. «Lehen bazen mendi taldea, baina desagertu egin zen. Normalean 30-35 lagun joaten gara irteeretara eta autobusa osatzeko aukera dugunean zeharkaldia egiten dugu, bestela, autoz mugitzen gara», azaldu du Eduardo Torrok. Hauek Iparraldera gutxiago joaten dira, joateko denbora gehiago behar dutelako. Pirinioetako irteerak «arrakasta handia» izaten duela, horregatik aurten bi irteera prestatu dituzte, seguruena GR-11ko ibilbideari heldu eta lehen hiru etapak egingo dituzte aurten, Hondarribiatik hasita.

Botak prestatu eta hasi pentsatzen eskaintzen zaizkizun ibilaldi guztietatik zein egin nahi duzu, naturaz eta kirolaz gozatuz.

Uzturre ▶



Urtarrilak 14. Hendaia-Bidart.
Otsailak 11. Heleta-Baigorri.
Martxoak 18. Bilbo-Laudio.
Apirilak 22. Egozkue-Aldude.
Maiatzak 13. Intza-Uharte Arakil.
Ekainak 17. Urduña-Angulo mendatea.
Uztailak 15. Laugarbar-Irati.
Irailak 23. Landibarreko zirkoa.
Urriak 14. San Pelaio-Balmaseda.
Azaroak 11. Otzaurte-Egino.
Abenduak 16. Deba-Zarautz (Babarrun jatea)

AIZKARDI ▶



Urtarrilak 21. Artzamendi.
Otsailak 11. Gorbeia.
Martxoak 25. 39. Ibilaldia Ernio inguruan.
Apirilak 22. Errozate-Urkulu.
Maiatzak 20. Zalama-Ordunte.
Ekainak 17. Moncayo.
Uztailak 15. Larrañe-Otsogorrigaina-Belagoa.
Irailak 22-23. Pirinioak.
Urriak 21. Aizkorri.
Azaroak 19-25. Mendi astea (Irteera Villabona inguruan).
Abenduak 16. San Lorenzo-Demanda mendizerra.

ALEGIA ▶



Urtarrilak 28. Jasku (Bedaio).
Otsailak 25. Ibaizabalena jaiolokua.
Martxoak 25. Urbasa (sagardotegia)
Apirilak 29. Pardarri.
Maiatzak 27. Araotz-Degurixa-Aretxabaleta.
Uztailak 7-8. Pirinioak (I-II).
Irailak 30. Pirinioak (III).
Urriak 28. Eskubaratz-Oba-Naparratiz.
Azaroak 25. Otsabio-Bedaio (Babarrun jatea).

LEITZA ▶ POLITIKA

ERREDAKZIOA

Zinegotzi guztiak udaletxean zeudela batzar bakoitzean ohikoa den bezala, jorratu beharreko gaiak landu zituzten, nahiz eta Itziar Larraz eta Unai Errearen kasuak aztertzerakoan UPNko 3 zinegotziak aretoetik atera ziren. Silbestre Mari Zubiturrek, UPNko zinegotziak azaldu duen bezala, «herriko gaietaz aparte ez dugu bestelakoetan parte hartu nahi».

Etxebizitzaen alokairuaren inguruko mozioa izan zen onartuetako bat. Larrain Herri Plazak luza zuten proposamena, «alokairu politikak bultzatzeko beharra» nabarmendu zutelarik. Mozio honen helburua bikoitza da: alde batetik, «hutsik dauden etxebizitzak 'betetzea' eta bestetik, «etxebizitzarik ez duen herritarri etxebizitza izateko aukera eskaintzea».

Bestalde, Itziar Larraz eta Unai Errearen espetxeratzearen ondorioz, bi abokatuak askatzeko mozioa ere onartu zuten, «bi abokatuaren egoera salatu, elkartzatza adierazi eta berehala aska ditzatela» exijituz. Larrainek luza zuten proposamenaren arabera, Itziar Larraz eta Unai Errearen espetxeratzearekin, «euskal presoen ezezik, orain hauen defen-

Azkeneko batzarra urtarrileko bigarren astean burutu dute

Herriko talde politiko guztiak izan ziren joan den asteleheneko osoko bilkuran eta hiru mozio onartu zituzten



Leizako udaletxea. N. GARZIA

tsarako eskubidea eta abokatu lanerako eskubidea ere zantzen da».

Azkenik, Sartagundan Oroimenaren Parkea delakoa erai-

kitzeko asmotan direnez, Leizako Udalak ekimen honi laguntza emateko mozioa onartu zuten. Parkea eraikitzeko asmoa ez da berria, 2003ko mar-

txoaren 10ean Nafarroako Parlamentuak Gerra Zibilean fusilatu zituzten pertsonei omenaldia egiteko adierazpena onartu baitzuten.

OSASUNA ▶

Farmazien guardiak aldatu ditu Osasun sailak

N. GARZIA

Farmazien guardien aldaketaren ondorioz, inguruko herri ezberdinetako artean eginen dituzte txandak, Leizta, Areso, Irurtzun, Lekunberri, Arribe eta Goizuetako artean, alegia.

Aldaketa hau dela eta, aste honetan guardian dagoen farmazia Leizako Erbiti da eta hurrengo estetik aurrera, guardian txandek orden hau jarraituko dute: Lekunberriko Mendia farmazia, Leizako Gimeno farmazia, Lekunberriko Azpirotz Zubiria farmazia, Leizako Larraia farmazia, Goizueta eta Arribeko farmaziek (Apezetxea Lizaso eta Garmendia Goikoetxea) elkarrekin eginen dute guardia, Leizako Arrupea Plaza farmazia, Irurtzungo Gastearen-Martirena farmazia, Areso Goizueta farmazia eta azkenik, Irurtzungo Mutiloa Martirena farmazia.

LEITZA ▶

Obrak amaitu arte, autobusa Manuel Lasarten

N. GARZIA

Joan den abenduan Gazpillo-Zuloko erreka bideratzeko hasitako obrak oraindik amaitu ez dituztenez, Udalak bere momentuan jakitera eman zuen bezala, bai Roncalesaren bai Leitzaranean geltokiak Manuel Lasarte kalean izanen dira, Landa Hostala eta Guria Tailerraren parean, hain zuzen ere.

LEITZA ▶ ZINEMA

'Volver', Almodovarren azken filma, gaur eta etzi zineman ikusgai

Bere filmetan ohikoa den bezala, emakumeen munduan barneratzen da

N. GARZIA

Gaur gauean eta igande arratsaldean Leizako zineman botako duten Almodovarren *Volver* film honetan emakumeen

mundua aztertzen du beste behin zinema zuzendariak. Unibertso hau abiapuntutzat hartuz, heriotzari begietara so egiten dio zuzendariak, hildako emakume baten istorioa



Filmaren kartela. HITZA

kontatzen baitu, Irene izeneko ama batena (Carmen Maura), zeina hil ondoren bizitzara itzultzen den bere alabarekin (Penelope Cruz) konpondu beharreko arazo batzuei aurre egiteko asmoz.

Emakumearen bakardadea eta amatasuna ere jorratzen ditu Almodovarrek, Blanca Portillo eta Lola Dueñas aktoreen eskutik.

Pedro Almodovarren filmetan ohikoa den bezala, ikaragarriko arrakasta lortu zuen bai Espainian, baita nazioarte mailan ere, eta aurtengo Oscar sarrietarako ere izendatu dute.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Irura. Udalak Landa-ingururako Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilean edo otsailean hasita: Euskal sukaldaritzaren sortzaile berria eta Ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udaletxean, liburutegian edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net -era idatziz ere egin dezakete urtarrilaren 19a baino lehen.
Tolosa. Txalo antzerki taldearen 'Errelebo' antzezlan, Leidor antzokian, 20:00etan. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrak dira protagonistak.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansoenaren zeramika koadro lanak, jubilatuen tabernan, etzi arte.
Tolosa. Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da bihar bitarte Aranburu Jauregin. Bisita-orduak 17:30etik 20:30era bitarte, jaiegunetan eta asteleheneetan izan ezik.
Tolosa. Maria Jose Rekaldere eskultura erakusketa Aranburu hil honen 20ra arte.
Tolosa. Ana Jesus Ansoenaren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Lanbroa tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Asteko onena.
21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Egun ahaztezinak jolasean

TOLOSA ▶ Galtzaundik Gabonetako ludotekaren gaineko balorazio «oso baikorra» egin du; Ibarra, Tolosa, Anoeta eta Irurako haurrak izan dira bertan



Jolas ugari egin dituzte Gabonetan eskualdeko gazteboek Galtzaundi ludotekan. HITZA

ERREDAKZIOA

Gabonekin batera Galtzaundik bere ludotekako atek zabaldu zituen. Guztira 18 haurrek ehundaka jolas, abesti eta eskulan eginez egun ahaztezinak igaro zituzten. Beraiek aukeratutako filmeren bat ere ikusteko aukera izan zuten egun horietan zehar. Miren Valverde eta Alexander Padilla aritu ziren begirale lanetan eta haurren parte-hartzea nabarmendu nahi izan dute. Beraien ustez, Ibarrik, Tolosatik edota Irura zein Anoetatik etorritako haurrak «ilusioz» aritu ziren ludotekak iraun zuen bitartean. Olentzerori eskutitza idazteaz gain, Errege Magoei ere idazteko aukera izan zuten. Goizean goiz esnatu eta bazkalordura bitarte barreak eta momentu onak nabarmendu dituzte ludotekako haurrek.
 Urtarrilaren 5ean itxi zituen ludotekak bere atek, bi aste dibertigarri igaro ondoren. «Gabonak ez dira berdinak izan ume hauen artean» diote begiraleek. «Txikiak gabonetan duten ilusio eta urduritasun hori ere barneratu digute» dio Valverdek alai.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aratz Monreal Mitxelena (Tolosa). Gaur 5 urte. Argiñan baino sukaldari hobea! Etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Eneritz Agirre Armendariz (Aitzo). Gaur 2 urte. Zorionak aitabo eta amabon partetik.



URTE ASKOAN
Beñat Beloki Goikoetxea
 Gaur 10 urte. Bedaiotar honi Aiora eta gurasoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
 Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
 Udaletzeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...